



## **ZIGOITIKO ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAREN ARAUDIA**

### **ZIOEN AZALPENA**

Herritarrek banaka nahiz elkarte edo taldeen bitartez parte har dezakete gai publikoen kudeaketan. Udal elkarteen xedeak interes orokorrak edo sektoreko interesak defendatzea izan beharko du.

Konstituzioko 9. artikulua zera dio: "Botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen; askatasun eta berdintasun xede hori galarazten edo osotara garatzea zailtzen duten oztopoak kentzea, eta herritar guztiei aukera egokia ematea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko".

Araudi honen xedea Udal Elkarteak eta, baldintza jakin batzuekin, horiek erakundeen bizitzan sartzeko modua arautzea da.

Asoziazionismoa herritarrek beren herriarekin konpromisoa hatzeko taldeko adierazpena da eta boluntariotza haien adierazpenik konprometitu eta eraldatzaileenetarikoa bat da.

Udal elkarteek beren jarduerak berme osoarekin garatu ahal izatea lortzeko, Udalak honako alor hauetan lagunduko die:

- Kudeaketa, dinamizazioa eta elkartzeko mugimenduen sustapenerako gaitasun eta prestakuntza programetan.

## **REGLAMENTO QUE REGULA EL REGISTRO MUNICIPAL DE ASOCIACIONES DE ZIGOITIA**

### **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La participación ciudadana en la gestión de los asuntos públicos puede llevarse a cabo bien de forma individual o bien a través de organizaciones o asociaciones. Las asociaciones municipales deben pretender la defensa de los intereses generales o sectoriales.

El artículo 9 de la Constitución, "encomienda a los poderes públicos que promuevan las condiciones para que la libertad e igualdad del individuo y de los grupos en que se integra, sean reales y efectivas, remuevan los obstáculos que impida o dificulten su plenitud y faciliten la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social".

Es objeto de este Reglamento, la regulación de las Asociaciones municipales y de su acceso, en determinadas condiciones, a la vida institucional en sus distintas variantes.

El asociacionismo es la expresión colectiva del compromiso de los/as ciudadanos/as con su pueblo y el voluntariado una de sus expresiones más comprometidas y transformadoras.

Para conseguir que las asociaciones municipales puedan desarrollar sus actividades con plenas garantías el Ayuntamiento colaborará en:

- Los programas de formación y capacitación en la gestión, en la dinamización y en el impulso del movimiento asociativo.



- Parte-hartze eta kudeaketa maila desberdinetarako aholkularitzan, eta udal instalazio eta zerbitzuen kasuan, kudeaketa partekatuan ere bai.

Egokia denean, haien jarduerak sustatzeko baliabideak eman ahalko ditu.

## **1. KAPITULUA: ELKARTEEN UDAL ERREGISTROA**

### **1. art. ARAUDIAREN XEDEA.**

Zigoitiko Udalerriko Elkarten udal erregistroaren xedea udalerrian daude entitateen kopurua zein den jakitea eta beren helburuak, ordezkaritza eta gertakizunak ezagutzea da, udalerriko elkarten sarea indartzen laguntzeko udal politika egokia ahalbidetzeko, Toki Erakundeen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudiaren arabera.

Eusko Jaurlaritzaren Elkarten erregistro Orokorretik bereizirik dago, hori dela eta, azken erregistro horretan inskribatuta egoteak ez du Udal Erregistroan inskribatuta egotea eragingo.

### **2. art. ELKARTEEN DEFINIZIOA.**

Araudi honen ondorioetarako, Udal Elkarteak honako hauek izango dira: irabazi asmorik gabeko elkarte guztiak, legeari jarraiki eratu badira, Udalerriko herritarren interes orokorrak edo sektore-interesak defendatu, sustatu edo hobetzeko helburua badute, beren eragin esparruak Zigoitiko udalbarrutia hartzen badu, sozietatearen egoitza bertan badute eta Zigoitiko Elkarten

- El asesoramiento, a diferentes niveles de participación y gestión, incluida la gestión compartida en el caso de las instalaciones y servicios municipales.

La aportación en su caso, de recursos para promover la realización de sus actividades.

## **CAPÍTULO 1: DEL REGISTRO MUNICIPAL DE ASOCIACIONES**

### **Art. 1 OBJETO DEL REGLAMENTO.**

El registro municipal de Asociaciones del Municipio de Zigoitia, tiene por objeto conocer el número de entidades existentes en el municipio, sus fines, representatividad e incidencia, a efectos de posibilitar una política municipal adecuada que contribuya a fortalecer el tejido asociativo del municipio, de acuerdo con lo establecido en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Es independiente del registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco, por lo que la inscripción en este último, no presupondrá la inscripción en el Registro Municipal.

### **Art. 2. DEFINICIÓN DE ASOCIACIONES.**

Se consideran Asociaciones Municipales a los efectos establecidos en el presente reglamento, todas las asociaciones sin afán de lucro legalmente constituidas que tengan como objetivos la defensa, el fomento o la mejora de los intereses generales o sectoriales de los/las ciudadanos/as del Municipio, cuyo ámbito de actuación comprenda el término municipal de Zigoitia y tenga su sede



Udal Erregistroan inskribatuta badaude.

**3. art.** Erregistroa Udalaren Idazkaritza Nagusiaren menpe egongo da eta bertan jasotako datuak publikoak izango dira.

## **2. KAPITULUA: ERREGISTROKO INSKRIPZIOA**

### **4. ART. ERREGISTROKO INSKRIPZIOA.**

Honako Elkarte edo Fundazio guztiak inskribatu ahalko dira: irabazi asmorik gabeko elkarte guztiak, legeari jarraiki eratu badira, Udalerriko herritarren interes orokorrak edo sektore-interesak defendatu, sustatu edo hobetzeko helburua badute, bereziki, guraso eta auzokide elkarteak, kultura, kirol, aisialdi, gazte, sindikatu, enpresa eta profesional elkarteak eta antzeko guztiak, beren eragin esparruak Zigoitiko udalbarrutia hartzen badu, sozietatearen egoitza bertan badute.

Elkarteak ezingo dira inolaz ere inskribatu beren araubide juridikoa eta funtzionamendua sistema demokratikoaren kontra badao.

**5. art.** Inskripzioa erakunde interesdunak eskatuta egingo da eta horretarako, honako datu hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabide ofiziala eta dagokion organoak inskripzio hori eskatzea adostu duela frogatzen duen agiria.
- Estatutuen Kopia edo indarrean dauden funtzionamendu arauak.
- Euskal Herriko Elkartearen Erregistro Orokorreko inskripzio

social en él, y que se encuentren inscritas el Registro Municipal de Asociaciones de Zigoitia.

**Art.3.** El Registro dependerá de la Secretaría General del Ayuntamiento y los datos contenidos en él, serán públicos.

## **CAPITULO 2: DE LA INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO**

### **Art. 4. INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO.**

Podrán inscribirse todas las Asociaciones o Fundaciones sin ánimo de lucro legalmente constituidas que tengan como objetivos la defensa, el fomento o la mejora de los intereses generales o sectoriales de los/as ciudadanos/as del municipio y en particular las asociaciones de padres y madres, las de vecinos y vecinas, las entidades culturales, deportivas, recreativas, juveniles, sindicales, empresariales, profesionales y cualquiera otras similares cuyo ámbito de actuación comprenda en todo caso el término municipal de Zigoitia y tengan en él su sede social.

En ningún caso se inscribirán asociaciones cuyo régimen jurídico y de funcionamiento sea contrario al sistema democrático.

**Art.5.** La inscripción se realizará a solicitud de la entidad interesada, que habrá de aportar los siguientes datos:

- Instancia oficial, acompañando el acuerdo del órgano correspondiente en el que se acuerde solicitar dicha inscripción.
- Copia de Estatutos o normas de funcionamiento vigentes.
- Número de inscripción en el registro General de Asociaciones del



zenbakia eta/edo beste erregistro publikoetakoak.

- Zuzendaritza karguetako pertsonen izena eta sexua.

- Sozietatearen helbidea.

- Elkartearen IFKren fotokopia.

- Eskaera egiten den unean bazkideak diren gizon eta emakume kopuruaren ziurtapena eta bazkidearen kuota.

- Zigoitiko udalerrian erroldatuta dauden bazkideen kopuruaren ziurtapena.

- Urte horretako diru-sarrera eta gastuen aurrekontua.

- Urte horretako jarduera eta zerbitzuen oroitidazki laburra. Jarduerak euskaraz egingo diren edo zein ehunekotan egingo diren adieraztea.

Elkarteen Udal Erregistro hau indarrean sartzen den unerako agiri horiek aurkeztu dituzten elkarteak, datuak egun horretarako eguneratuta dauzkatenean, eskabidea eta aurkeztu ez dituzten agiriak soilik aurkeztuko dituzte.

Agiriak aurkezteko tokia.- Zigoitiko Udalaren Erregistro orokorra. Bengolarra kalea 1. 01138 Ondategi.

## **6. art. INSKRIPZIO ERABAKIA.**

Agiri guztiak aurkeztu eta egokiak diren egiaztapenak egin ondoren, inskripzio eskaera egiten denetik 30 eguneko epean egingo da, hutsuneak konpondu beharragatik inskripzioa eten behar bada izan ezik. Alkatetzak Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzearen gaineko erabakia hartuko du eta eskaera egiten duen erakundeari inskripzio zenbakiaren berri emango dio, izan ere, une

País vasco y/o en otros registros públicos.

- Nombre y sexo de las personas que ocupan los cargos directivos

- Domicilio social

- Fotocopia del CIF de la asociación.

- Certificación del número de mujeres y de hombres asociados en el momento de la solicitud e indicación de la cuota de socio/socia.

- Certificación del número de socios y socias empadronadas en el municipio de Zigoitia.

- Presupuesto de ingresos y gastos del año en curso.

- Breve memoria de actividades y servicios para el año en curso. Indicar si las actividades se realizan en euskera o en qué porcentaje.

Aquellas asociaciones que tengan presentado a la fecha de entrada en vigor de este Registro Municipal de Asociaciones la documentación anteriormente descrita y actualizada a dicha fecha únicamente presentarán la solicitud y la documentación que no haya sido presentada.

Lugar de entrega.- Registro general del Ayuntamiento de Zigoitia. C/ Bengolarra 1. 01138 Ondategi.

## **Art. 6. RESOLUCIÓN DE INSCRIPCIÓN.**

Una vez entregada la totalidad de la documentación y realizadas las comprobaciones oportunas, en el plazo de 30 días desde la solicitud de inscripción, salvo que ésta se hubiera tenido que interrumpir por la necesidad de subsanar deficiencias. La Alcaldía resolverá la inscripción en el Registro Municipal de Asociaciones y notificará a la entidad solicitante el número de inscripción ya que a partir



horretatik aurrera ondorio guztietarako Elkarteen Udal Erregistroan altan emana dagoela ulertuko da.

Udalak erakundea erregistroko tipologia eta sektore batean sailkatuko du eta interesdunari horren berri emango dio egokitzat jotzen dituen oharrek egin ditzan.

Jakinarazpenetik hamabost eguneko epean ez badu inolako alegaziorik aurkezten, sailkapena onartutzat jo dela ulertuko da.

Sailkapen hori egiten den unean inskripziorako ezinbestekoa den baldintzaren bat falta dela ikusiz gero, interesdunari horren berri emango zaio 15 eguneko epean okerra konpon dezan eta konpondu ezean, bere eskaerari uko egin diola ulertuko da.

Datuak egiaztatzeko Idazkaritzak edozein unetan eskatu ahalko du Zigoitiko Udalean erroldatuta dauden bazkideen zerrenda, elkarteak emandako informazioa bermatzeko.

Pertsona horien zerrenda ez da publikoa eta egiaztapen horretarako soil-soilik erabili ahalko da, eta Datu Pertsonalen Babesaren alorrean indarrean dagoen legeriaren babespean geratuko dira.

Jarduerako sektoreak honako hauek dira:

Komunikazioa, Nazioarteko Kooperazioa, Kultura, Kontsumitzailearen defentsa, Kirolak, Giza Eskubideak, Hezkuntza, Gazteria, Ingurumena, Emakumea, Profesionalak, Aisia, Erlijioak, Gizarte babesa, Garraioak, bestelakoak.

de ese momento se considerará que la asociación está dada de alta en el Registro Municipal de Asociaciones a todos los efectos.

El Ayuntamiento clasificará a la entidad en una de sus tipologías y sector existentes en el registro y lo notificará al interesado para que alegue lo que considere conveniente.

Si en un plazo de quince días desde la notificación, no ha presentado ningún tipo de alegación se entenderá aceptada la clasificación realizada.

Si en el momento de hacer esta clasificación se detectara la falta de algún requisito esencial para la inscripción se comunicará a la persona interesada para que en un plazo de 15 días pueda subsanar el defecto, dándose por desistido caso de no hacerlo.

De cara a la comprobación de datos, la Secretaría del Ayuntamiento podrá solicitar en cualquier momento el listado de socio/socias empadronadas en el Ayuntamiento de Zigoitia que avale la información suministrada por la asociación.

El listado de estas personas no es público, y sólo podrá ser utilizado para la citada comprobación y para ninguna otra, quedando protegido por la legislación vigente en materia de Protección de Datos de Carácter Personal.

Los sectores de actividad son:

Comunicación, Cooperación Internacional, Cultura, Defensa del Consumidor, Deportes, Derechos Humanos, Educación, Juventud, Medio Ambiente, Mujer, Profesionales, Recreativas, religiosas, Soporte social, Transportes, otros.



### **3. KAPITULUA: DATUEN ALDAKETA**

#### **7. art. ALDAKETAK.**

Inskribatutako elkarteek Udalari derrigorrez jakinarazi beharko dizkiote idatziz inskripzioarako oinarri gisa erabili diren agirietako datuetako aldaketa guztiak.

- Aldaketa puntualak: esaterako, zuzendaritzako karguak aldatu edo berritzen direnean, bazkide kopurua aldatzen denean...

- Estatuetako aldaketak: adibidez, sinadurak, jarduera esparrua, sozietatearen helbidea, Elkartearen desegitea...

Epea: aldaketa egiten denetik hilabeteko epea egongo da horren berri emateko, eta horretarako, erakunde eskudunak hartutako erabakiaren ziurtagiria eta agiri berriak aurkeztu beharko dira.

#### **8. art. INSKRIPZIOAREN INDARRALDIA.**

Inskripzioak indarrean jarraitzeko beharrezkoa izango da erregistroan inskribatutako erakundeek urtero urtarrilaren 30a baino lehen Udalari honako hauek aurkeztea:

- Urte horretako jardueren egitaraua eta erakunde eskudunak egitarauaren onespenean erabakia jasotzen duen akta.

- Abenduaren 31n dagoen bazkide kopuruaren ziurtapena.

Agiri horiek aurkeztu ezean, Udalak Elkartearen Udal Erregistroan ofiziozko bajari ekin ahalko dio Araudi honetako 9. artikulua arabera.

### **CAPÍTULO 3: MODIFICACION DE DATOS**

#### **Art.7. MODIFICACIONES.**

Las asociaciones inscritas están obligadas a notificar por escrito al Ayuntamiento cualquier modificación de los datos incluidos en la documentación que haya servido de base para la inscripción.

- Modificaciones puntuales: Tales como modificación o renovación de cargos directivos, modificación del número de socios, ...

- Modificaciones estatutarias: tales como firmas, ámbito de actuación, domicilio social, disolución de la Asociación, ...

Plazo: dentro del mes siguiente al de la fecha en que dicha modificación se haya producido, aportando certificación del acuerdo adoptado por el órgano competente y la documentación nueva.

#### **Art.8. VIGENCIA DE INSCRIPCIÓN.**

A efectos de continuación de la vigencia de la inscripción, todas las entidades inscritas en el registro deberán presentar anualmente al Ayuntamiento, para antes del 30 de enero:

- Programa de actividades para el año curso, acompañando el acta en el que se recoge el acuerdo por el órgano competente aprobando el programa.

- Y certificación del número de socios a 31 de diciembre.

Ante la falta de esta documentación el Ayuntamiento podrá incoar la baja de oficio en el Registro Municipal de Asociaciones de



conformidad con el art. 9 de este Reglamento.

**4. KAPITULUA:  
ERAKUNDEARI ELKARTEEN UDAL  
ERREGISTROAN BAJAN EMATEA**

**9. art. UDAL ERREGISTROAN  
BAJAN EMATEA.**

Inskribatutako elkarteek edozein unetan eskatu ahalko dute Erregistroan bajaran emateko, eta horretarako, beharrezkoa izango da Udalari idatziz horren berri ematea eta idazkariak jaulkitako ziurtagiria aurkeztea.

Alkatetzari dagokio Araudi honetan ezarritako betebeharrak ez betetzearen, desgitearen edo epai irmoaren bitartez jarduerak bertan behera uztea xedatzearen ondorioz ofizioz bajaran ematea. Kasu honetan izan ezik, interesdunari entzungo zaio eta hark 15 eguneko epean alegazioak egin ahalko ditu. Inolako alegaziorik egin ezean, bajaran emango zaio.

**5. KAPITULUA: DATUEN  
PUBLIZITATEA**

**10. art. DATUEN  
PUBLIZITATEA.**

Elkarteen Udal Erregistroa bakarra izango da, Udalbatzaren Idazkaritzaren menpe egongo da eta bertako datu orokorrak publikoak izango dira, Datu Pertsonalen Babesaren alorrean indarrean dagoen legeriak aurrez ikusten dituen baldintzekin.

Urtero elkarteek fitxategi bat landu eta eguneratuko da, eta bertan, Elkarteek Udal erregistroan izena emateko unean edo inskripzioa berritzean adierazitako banakako datu orokorreaz gain, jarduerak gauzatu ahal

**CAPITULO 4: BAJA DE LA  
ENTIDAD EN EL REGISTRO  
MUNICIPAL DE ASOCIACIONES.**

**Art.9. BAJA EN EL REGISTRO  
MUNICIPAL.**

Cualquier asociación inscrita previamente podrá solicitar la baja en el Registro, comunicándolo por escrito al Ayuntamiento, aportando el correspondiente certificado, expedido por el secretario/a.

Corresponde a la Alcaldía la baja de oficio por incumplimiento de las obligaciones establecidas en este Reglamento, por disolución o por suspensión de actividades decretada por sentencia judicial firme. Salvo en este caso, se dará audiencia al interesado quien podrá formular alegaciones en el plazo de 15 días procediendo a su baja en el caso de que no presente alegación alguna.

**CAPITULO 5: PUBLICIDAD  
DE LOS DATOS.**

**Art.10. PUBLICIDAD DE  
LOS DATOS.**

El registro Municipal de Asociaciones será único, dependerá de la Secretaría de la Corporación y sus datos generales serán públicos, con las restricciones que en todo momento prevea la legislación vigente en materia de Protección de Datos de Carácter Personal.

Anualmente se elaborará y actualizará un fichero de asociaciones que incluirá, además de los datos generales individualizados que hayan declarado las Asociaciones en el momento de su inscripción en este



izateko jaso dituzten udal diru-laguntzak ere jasoko dira. Fitxategi hori eskatzen duten Erregistroko Elkarte guztiei bidaliko zaie.

### **11. art. ERREGISTROKO DATUEN ZIURTAGIRIA.**

Erregistroko datuen inguruan jaulkitako ziurtagiriak inskripzioa egin dela eta elkartea zein motatakoa den ziurtatzeko agiri bakarrak izango dira.

### **6. KAPITULUA: ELKARTEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### **12. art. ESKUBIDEAK.**

Herritarren interesak defendatzeko udal elkarteek honako eskubide hauek izango dituzte:

1.- Aldez aurretik idatziz eskatuz gero, udal erakunde kolegiatuen organoen bilera publikoen deialdiak sozietatearen helbidean jasotzeko eskubidea, bilera horien gai-zerrendan elkartearen xede sozialarekin lotutako gaiak azaltzen direnean, eta balizko egoera horretan ere, organoek hartu dituzten erabakiak eta ebazpenak jasotzeko eskubidea izango dute.

2.- Udalaren argitalpenak jasotzeko eskubidea.

3.- Informazio batzordeen bileretara joateko eskubidea, bileran eztabaidatuko diren gaiak zuzenean eragiten dienean, baldin eta batzordeburuaren ustez beharrezkoa bada elkarteko ordezkarien iritzia entzutea, eta horretarako, aldez aurretik dei egingo zaie.

4.- Udalari diru-laguntzak eskatzeko eskubidea, diru-laguntzen

registro Municipal o de su renovación en el mismo, las subvenciones municipales que hayan recibido para hacer posible la realización de las actividades. Este fichero se remitirá a todas las Asociaciones del Registro que lo soliciten.

### **Art. 11. CERTIFICACIÓN DE LOS DATOS DEL REGISTRO.**

Las certificaciones expedidas sobre los datos registrales serán documentos únicos para acreditar la condición de la inscripción y la naturaleza de la asociación en cuestión.

### **CAPITULO 6: DERECHOS Y DEBERES DE LAS ASOCIACIONES.**

#### **Art.12. DERECHOS.**

Se reconocen a las asociaciones municipales para la defensa de los intereses generales de los vecinos y vecinas los siguientes derechos:

1.- A recibir en su domicilio social, siempre que lo hayan solicitado previamente por escrito, las convocatorias de los órganos colegiados municipales que celebren sesiones públicas cuando en el orden del día figuren cuestiones relacionadas con el objeto social de la asociación, y en los mismos supuestos, recibir los acuerdos y resoluciones adoptados.

2.- A recibir publicaciones editadas por el Ayuntamiento.

3.- A asistir a las sesiones de las comisiones informativas cuando se traten de temas que les afecten de manera directa siempre que el Presidente de la Comisión considere necesario escuchar el parecer de los representantes de la asociación, para lo cual se les convocará previamente.

4.- Solicitar subvención municipal siempre y cuando cumplan



araudian xedatutakoa betetzen baldin badute.

5.- Udal baliabide publikoak, lokalak eta tokiak erabiltzeko eskubidea, baina horretarako, beharrezkoa izango da alde zuzenetik eskaera aurkeztea eta udalaren baimena eskuratzea.

**13. art. BETEBEHARRAK.**

Elkarteek 6, 7, 8 eta 9. artikuluetan xedatutakoa derrigorrez bete beharko dute.

**14. art.** Elkarteen erregistroa araudi honetan xedatutakoaren arabera arautuko da. Zigoitiko udalak agiri hau eta agiria betetzearen ondoriozko zalantzak interpretatzeko eskumena izango du. Araudi honetan berariaz arautu ez den gainerako guztian, aplikatu beharreko araudia bete beharko da.

lo determinado por la normativa de subvenciones

5.- A la utilización de los medios públicos municipales, locales y espacios, previa petición y autorización municipal.

**Art.13. DEBERES.**

Las asociaciones están obligadas a lo ya dispuesto en los art. 6, 7, 8 y 9.

**Art. 14.** El registro de Asociaciones se registrará por lo dispuesto en este reglamento. El ayuntamiento de Zigoitia tiene la prerrogativa de interpretar el presente documento y las dudas derivadas de su cumplimiento. En todo aquello no expresamente regulado en el presente Reglamento, se estará a lo dispuesto en la normativa vigente que le sea de aplicación.

Ondategin, 2020ko maiatzaren 14an. /En Ondategi, a 14 de mayo de 2020.

ALKATEA/EL ALCALDE,

Izp./Fdo.: Javier Gorbeña García

DILIGENCIA.- Se extiende para hacer constar que el reglamento que regula el registro municipal de asociaciones de Zigoitia fue aprobada por esta Corporación en Sesión celebrada el día 14 de mayo de 2020 y publicada en el BOTA (nº 64 de fecha 8 de junio de 2020) y en el tablón de Anuncios del Ayuntamiento para su exposición al público durante el plazo de 30 días no habiéndose presentado reclamación alguna. Publicada íntegramente en el BOTA nº 95 de fecha 24 de agosto de 2020.

En Ondategi, a 24 de agosto de 2020.

Vº Bº

EL ALCALDE

LA SECRETARIA

Fdo.: Javier Gorbeña García

Fdo.: Ziortza Guinea Gutierrez.